

TENISA



Connors eta Navratilova.

Ivanisevic-Rosset neurketa EEBBeko Irekiaren hasieran

DONOSTIA

Estatu Batuetako Irekia astelehenean hasiko da eta zozketa egina dago jadanik. ATPn lehen zerrendaburua den Jim Courierrek Alex O'Brien estatubatuarren kontra jokatu du. Teorian ez luke arazorik izan behar bigarren kanporaketara pasatzeko baina Courier aspaldian ez dago sasoiko eta azkeneko hiru hilabeteetan ez du torneorik irabazi. Bigarren zerrendaburua den Stefan Edbergek aurreneko kanporaketan Luiz Mattar brasildarra izango du aurrean.

Ireki honetako hirugarren zerrendaburua Pete Sampras estatubatuarra da eta azken egunera iristeko faborito nagusienetakoa da, zalantzarik gabé. Aurreneko kanporaketan ez du aurkakorik izango eta bigarrena pasatuko da zuzenenean, Michael Chang bezala.

Gizonezkoetan neurketa interesgarrienak hauek izango dira: Ivanisevicek (5) Barcelonan urrezko domina irabazi zuen Marc Rosseten aurka jokatu du. Ez dute zorte onik izan zozketan, ez; Petr Korda (6) eta Emilio Sanchez Vicariok indarrak neurtuko dituzte. Beste hainbat partidu ere izango da.

Emakumezkoetan, Seles lehen zerrendaburua Kellerran aurka jokatu du, Sabatinik Havey-Wilden kontra, Navratilova bigarrena pasatuko da zuzenean, Sanchez Vicario eta Savchenko-Neilnadek indarrak neurtuko dituzte...

SABATINI CARLSBAD-EN KALERA

EEBBeko Irekia hastear da goenean, emakumezkoetan txapelketa irabazteko faboritoetako bat den Gabriela Sabatini, sasoiko ez da dagoela dirudi; izan ere, Carlsbadeko (EEBB) Torneoan kanporatu egin zuten. Bere berreroa Leila Meskhi izan da eta final laurdetan 6-0, 6-3 galdu zuen.

Askok hobetu beharko du Sabatinik. Argentinarra 52 egun egon da jokatzeko. Gehiegi, agian.

RUGBYA

Miarritzen omenaldi hunkigarria egingo diote asteburuan Blancori

Munduko jokalaririk onetsuenak bilduko dira bihar arratseko 8.30etan

Tinta dextente isuri da honez gero gizon berezi honetaz idazteko. Zorionez, jarraituko dugu beste hainbat isurtzen eta seguraski ez dugu puska batean amaituko. Hamaika aldiz aipatu ditugu Serge Blancoren datuak, baina badira oraindik asko ezagutzen ez direnak eta horiei ekingo diegu lehen-lehenik.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Mitchel Zelaia, Frantziako kapitain ohiak lagundu zion Blancori lehen urratsak ematen. Kadete, junior eta senior mailan ere berarekin ikasi zuen. Zelaia biziki oroitzen du Blancok. Ez du inoiz Miarritze utzi, asko izan badira ere Blanco fitxatzen saiatu diren taldeak. Herria eta B.O. kluba izugarri maite ditu. Hasieran hegazkin enpresa batean egin zuen lan, gero edari baten salmentan, eta orain ehunen bat langile biltzen dituen Talasoterapia zentrua darama Hendaian. Iganeko omenaldia amaitu eta hurrengo egunean beteko ditu 34 urte Caracasen jaio zen rugbyari handi honek. Futbolak ere tentatu zuen, eta egun Frantzian indar handia duen talde batek bereganatu nahi izan zuen; baina Blancok rugbya aukeratu zuen.

Bere bi neurketa gogoangarriak selekzioarekin jokatu zituen, New Zealand eta Australian. Lehena Wellingtonen 84ean eta bigarrena Queenslanden aur-



Serge Blanco miarritzarra.

ka, eta bietan 50 puntuko aldeaz irabazi zuten. Ez dute hori askotan lortuko, baina neurketa horietan egundoko jokoa erakutsi omen zuten, Blancoren esanetan.

Lehen partidu internazionala Pretorian jokatu zuen Hegoafrikaren aurka (80-11-8) eta horrez gero 12 urtean jantzi du Frantziako elastikoa. Kasualitatez edo, Hegoafrikaren aurka jokatu agurtuko du Blancok goi mailako txapelketa, urriaren 31an Lillen.

Frantziako selekzioarekin rekord guztiak hautsi ditu miarritzarrek: 93 aldiz izan da internazionala ofizialki, 38 entseiu egin ditu eta 16 aldiz izan da kapitaina. Rugbyrako dohain guztiak erakutsi ditu Blancok, baina erasorako gehiago izan da defentsarako baino. Horrek ez du esan nahi defentsan huts eginen duenik; guk ezagutzen dugunetik, oso jokalaririk gutxi dago bere neu-

rrikoa. Berarekin entrenatu eta urteak igaro dituzten jokalaririk hitzak bildu ditugu, geureak baino baliotsuagoak direlakoan.

Beñat Esainek dioenez, «esker ona besterik ez dugu Sergerendako. Oso taldekide jatorra, jakintsua eta lagunkoia da. Oso gutxitan haserretu eta zakarki hartzen zaituzten horietakoa. Inoiz ikusi dudana jokalaririk handienetakoa da, eta izugarriko joko sormena du; sortzailea da berez».

Philippe Feulladek aldiz, Blancoren ezaugarri nagusia zein ote den galdetzerakoan «falta al zaio baten bat?», egin digu arrapostu. «Gizon konpletua izateaz gain izugarriko ikuspegia du. Lasaitasun osoz jokatu du». Guk adierazpen hauei zera gehituko genieke, prestakuntza fisikoa eta hoztasuna. Miarritzen egiten dituen entrenamenduetan —asko ez egia esan, hara eta hona ibili behar izaten bait du— sarri bakarrik ikusi izan dugu lanean.

Gaur izango da ospakizunik Miarritzen, baina omenaldiko ekitaldi nagusia igandeko partidua izango da, arratsaldeko 5etan Aguilera zelaian zazpikako neurketekin hasi eta arratseko 8.30etan Frantzia eta Blancoren selekzioaren arteko norgehiagoka heldu arte. Honako hamabostekoa osatu du Serge Blancok: McDowell (Ing), Dongra (Arg), Ondarts (Eus), Dooley (Ing), Condom (Eus), Jeffrey (Esk), Rodriguez (Fra), Small (H.Af), Diaz Paternain (Eus), Botha (H.Af), Campese (Aus), Gerber (H.Af), Codorniu (Fra), Georgegham (Irl) eta Blanco bera.

SASKIBALOA

Hagetmau Doazit-Loiola Easo gaur

E. ESNAOLA / DONOSTIA

Loiola Easok gaur aurrendenboraldiko hirugarren partidua jokatu du. Aurrena Caja Bilbaoren kontra jokatu zuen eta bigarrena atzo bertan. Neurketa gaueko 9.00etan hasi zen eta edizio hau ixterakoan jokatu ari ziren Lourdes eta Loiola Easo taldeak. Gaur, Frantzian hau ere, beste norgehiagoka batean arituko dira Gontzo Arrietak zuzentzen dituen jokalariek. Talde donostiarra oraingoan Hagetmau herrira joango da, bertako Hagetmau-Doaziten aurka jokatzeko. Talde frantziar hau, iragan denboraldian hirugarren mailan aritu zen. Onena zela erakutsiz txapelkun izan zen eta aurten beraz, Frantziako bigarren mailan jokatu du. Esan behar da,



Natxo Herreras.

VILLAGRAN

Frantziako bigarren maila, Espainiako lehen maila bezalakoa dela. Beraz, Loiola Easo eta Hagetmau-Doaziten maila berbera da.

Une hauetan, Loiolako jokalaririk berriak sistema eta talderen jokoa ezagutzen ari dira eta oraindik beraien maila onena emateko pixka bat falta da. Hala ere, arratsaldeko 7.30etan hasiko den neurketan emaitza ona lor dezakete.

Beste donostiar talde bat ere (atzo esaten genuen bezala) Frantzian dago, Askatuak alegia. Honek ere atzo jokatu zuen eta gaur beste partidu bat jokatu du Lourdes inguruan.

Bestalde, Caja Bilbao eta Askatuak taldeek irailean 5ean aurrendenboraldiko beste partidu bat jokatu dute.

LABURREAN

MANSELLEk denbora onena egin du entrenamenduetan

Nigel Mansell britainiarren denbora onena egin du 1 Formulako Belgikako Sari Nagusiko aurreneko entrenamenduetan. Jadanik txapelketa den Mansellek itzuli bat ematen minutu bat 50 segundu eta 545 chuneneko behar izan zituen. Bigarren denbora onena Ayrton Sennak egin zuen 1.52.743 denborarekin. Hirugarren Michael Schumacher izan zen. Sari Nagusi hau igandean korrituko da ●

INDURAIN, Bugno, Delgado eta Mottet Voltan

Miguel Indurain, Gianni Bugno, Pedro Delgado eta Charles Mottet izarrek, besteak beste, hartuko dute parte irailaren 9an hasiko den Volta Catalunyan. Proba honetan, guztira 13 talde izango dira eta horien artean Banesto, Gatorade eta ONCE talde garrantzitsuak egongo dira. Voltan zortzi etapa korrituko dira, horietatik bi erlojupekoak eta azkeneko etapa Sant Feliu de Guixolsen amaituko da ●

AURIOL lehenengo 1.000 Lakuetakoko Rallyan

Didier Auriol frantziarrak lehenengo etaparen denbora onena egin zuen 1.000 Lakuetakoko Rallyan. Proba hau, Munduko Txapelketaren barnean sartzen da eta bederatzigarren rallya da. Egun, sailkapen orokorrean lider Carlos Sainz espainiarra doa baina rally honetan ez du parte hartzen. Auriolek aurreneko edo bigarren postuan bukatzen badu lidergoa eskuratuko du ●

SCHMEICHEL

munduko atezain onena izendatu dute

Peter Schmeichel atezain daniarrena munduko atezain onena izendatu du IFFHSk. 28 urteko atezain honek 118 boto jaso zituen. Bigarren onena Andoni Zubizarreta izendatu zuten 28 botorekin. Daniarrena selekzioak Eurokopa irabazteak eragina izan du Schmeichel atezain onena izendatzeko orduan ●